

FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresak aurrera egin dezan oso garrantzitsua da bezero berriak lortzea, baita lehendik ditugun bezeroak mantentzea ere. Beraz, guk eskaintzen duguna fidagarria izan behar da eta merezi duela erakutsi behar dugu, horretarako detaile txikietan arreta handia jarritz. Web orrialdearen eta lokalaren itxura zaindu beharko dugu bezeroek inpresio txarrik eraman ez dezaten. Gainera, bezeroen zalantzak ahalik eta azkarren erantzungo eta konponduko ditugu gureganako konfiantza mantendu dezaten.

Gainerako enpresen moduan, eta lehen aipatu bezala, garrantzi handia ematen diogu bezero berriak lortzeari eta ditugunak mantentzeari, hau baita gure diru-iturri nagusia eta haiek gabe ezingo genuke enpresa aurrera eraman; horretarako, Maialen Santamaria, marketing-en abilezia eta trebetasuna dituelarik, geure bezero izan daitezkeen enpresa ezberdinekin jarriko da kontaktuan, gure enpresak eskaintzen duen produktuaren berri emateko eta hura aurkezteko.

Kide bakoitzak ardura bat izango du enpresa guztion artean aurrera eramateko, bakoitzak arlo desberdin batean baitu abilezia; alde batetik, Maialen Camposek kostuen kudeaketa eramango du aurrera, izan ere, kontabilitate arloan espezializatu da, eta honek gastu kudeaketan lagunduko digun tresnak emango dizkio.

Maialen Santamariak, ordea, marketing abilezia du, beraz gure bezero potentzialak izango diren enpresekin, kasu honetan garraio publikoen enpresekin, kontaktuan jarriko da eta gure zerbitzua zertan datzan azalduko die, horrela bezeroak erakarriz. Gainera, gure sare sozialei itxura erakargarria emateaz arduratuko da, beharrezko estrategiak erabiliz, bezeroak erakartzeko.

Bestalde, Iratxe informatika arloan oso trebea da, txikitatik mundu honetan barneratuta ibili baita, eta honek tresna informatiko ugari erabiltzeko abilezia eman dio; horregatik web orrialdeaz eta sare sozialez arduratuko da, bertan nobedadeak txertatuz eta hauek eguneratuz.

Saioak, berriz, eskulanekin trebezia handia izan du betidanik, beraz bera izango da materiala moldatzeaz arduratuko dena; behin materiala lortuta, doikuntza ugari egitea beharrezkoa izango dugu geure produktua sortzeko, horregatik Saioak, autobus bakoitzaren eserlekuen neurriaz abiatuta, neoprenoa moztu eta moldatuko du haiei egokitu dadin. Honek lan handia dakar, beraz pertsona ugari kontratatuko ditugu Saioarekin batera lan egiteko.

Azkenik, ezinbestekoa dugu lokaleko harreran gutako bat egotea, bertan egongo baitira bezeroen zalantzak argitzeko erabiliko ditugun telefonoa eta ordenagailua; dei eta mezu guztiak hartzeaz arduratuko dena Enara da, honek galdera guztiak erantzungo ditu eta,

ondoren, gainerako kideei bezeroen zalantzak zeintzuk diren azalduko die, eta hauek baliatuz gure web orrialdea moldatzen joango gara, faltan botatzen duten informazioa gehituz.

Gaur egun, teknologia berriei esker enpresa askok aurrera egiteko publizitatea erabiltzen dute, honek jendartean ezagunak egitea ahalbidetzen baitie. Oso tresna garrantzitsua dela uste dugu, batez ere enpresa sortu berria denean, hasieran nahiko zaila izaten baita enpresa zutik mantentzearen prozesua. Hau dela eta, iragarkiak sortuko ditugula erabaki dugu, gure enpresa eta produktua ezagutzera emateko eta, horrela, gure bezero potentzialak izango direnak irabazten joateko, haiek izango baitira gure diru iturri nagusiak. Kontuan hartu behar dugu honek kostu handia dakarrela, eta hura ordaintzeko mailegu bat eskatzea nahitaezkoa izango dugu, baina denboraren joanarekin, dirua biltzen goazen heinean, bankuari dirua itzultzeko gai izango gara.



